

1044. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Xedea

Informatikari laguntzaile baten zerbitzuak jasotzeko prozedura negoziatu bidezko zerbitzu kontratuaren behin betiko esleipena

Aurrekariak

Lehenengoa: Goi mailako udal informatikariari lan jardunean laguntza eskeiniko deusn eta udalak daukazan beharrizanetan bere zerbitzuak eskeiniko dauzan enpresa baten beharrizana diktaminatu eta baldintzen finkapena burutu zan 2008ko uztailaren 2ko ATB Batzordean

Bigarrena: 2008ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarrak, baldintza tekniko eta administratioak onesti eta esleipen jardunbideari hasikerea emon eutsan.

Hirugarrena: 2008ko uztailaren 4an, Informatikari laguntzailearen zerbitzuak jasotzeko kontratu baldintzak eta gonbitea luzatu jaken, CONSULTEC, SL, SAREIN SL ETA BERMEO INFORMATIKA, SL enpresei eta 10 eguneko epea eskaini jaken euren eskaintzak aurkezteko, azken eguna uztailaren 14an finkatuta.

Laugarrena: 2008ko uztailaren 11an, SAREIN SL enpresek, gonbidapenari uko egiten eutsola jakinarazo euskun.

Bosgarrena: 2008ko uztailaren 14an, BERMEO INFORMATIKA SL eta CONSULTEC, SL enpresek euren eskaintza aurkeztu euskuen.

Seigarrena: 2008ko uztailaren 15ean, jasotako eskaintza biak aztertu dira.

Zazpigarrena: 2008ko uztailaren 16an 993. Alkatetza Dekretu bidez, behin behineko esleipena ebatzi zan.

Zortzigarrena: 2008ko uztailaren 16an udal web gunean, behin behineko esleipena iragarri zan.

Argudioak

Lehenengoa: 2008ko uztailaren 16an web gunean behin behineko esleipena publikatu danetik 15 lanegun igaro dira jada eta ez da, behin betiko esleipena eragozten dauan ezelako alegaziorik aurkeztu.



Bigarrena: Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak eraentzen dauzan betekizun guztiak jarraitu dira; behin betiko esleipena burutu daiteke.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Informatikari laguntzaile baten zerbitzuak jasotzeko prozedura negoziatu bidezko zerbitzu kontratuaren behin betiko esleipendun BERMEO INFORMATIKA, SL enpresea izendatzea.

BIGARRENA: Kontratua 31.904 €tan esleitzea. Prezioa 27.504 €, gehi 4.400,64 € (BEZa).

HIRUGARRENA: Enpresa esleituari, esleipen horren indarrez, segidan adierazoten diran jarduketak egin beharko dauzala jakinarazotea:


- 10 egun balioduneko epean, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Epea, behin betiko esleipena jakinarazten dan eguneko biharamunetik zenbatzen hasiko da.

Behin betiko esleipena, Bermeoko web guneko "Kontratistearen Profila" deitzen dan atalean publikatuko da.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bda, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango dau kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

Bermeon, 2008ko abuztuaren 11n
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA

The image shows a circular official stamp of the Bermeo Udaltzaia (Municipal Council). The stamp contains the text "BERMEOKO UDALTZAIA" at the top and "ALKATEAZA" at the bottom. In the center of the stamp is a coat of arms. Overlaid on the stamp is a handwritten signature in black ink.